

ERABAKIA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDEZAKO SISTEMETAKO TEKNIKARIA L 20 LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA EGINKIZUNEN ESLEITZEAN BETETZEKO 2022KO IRAILAREN 27KO DEIALDIA EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2022ko irailaren 27ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2022ko urriaren 18ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Gerentzia honek eskumena dauka erabaki hau emateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko den 2021eko urtarrilaren 28ko erabakiarekin bat etorriz (2021eko otsailaren 12ko EHAAn),

Bigarrena.- Deialdiko lanpostua Eginkizunen Esleitzean erregimenaren bidez hornitzeko prozedura hau da: AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen 2017ko uztailaren 18ko Akordioa (AZPko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzkoa), UPV/EHUko Gobernu Kontzeiluaren 2017ko irailaren 28ko bilera berrestatua,

Hirugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak hurrenkera ordenatuan baloratu ondoren goren geratzen den pertsona.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

EBAZTEN DU

Lehenengoa.- Eranskinean jasota dauden baldintzetan eta azaltzen den lanpostuari eginkizunak esleituta hautatutako lan kontratudun langilea atxikitzea.

Bigarrena.- Esleipena 2022ko azaroaren 2ko ondorio-datatz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2017ko uztailaren 18ko akordioaren 8. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, dagozkien Zerbitzuko Buruei edo Administrazioaleei, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau jakinarazten den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69.2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia
(2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

Miren Lorea Bilbao Arteche
UPV/EHUko gerentea

I. ERANSKINA

2022ko irailaren 27ko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia

Esleipenduna: TORRE SEGARRA, JOSEBA GOTZON
Lanpostua: Sistemetako teknikaria
Erref: L 20
Zenbatgarrena: 2
Lanaldia: Arautua
Taldea: I
Categoría profesional: IKTko goi mailako teknikaria
Espezialitatea: Sistemen Informatika
Maila: 24
HE: 3.14/01
Langunea: INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN GERENTEORDETZA
Campus: BIZKAIA
BE:
Ondorio data: 2022ko azaroaren 2